



Atseginez jakinarazten dugu **Karmele Igartua** zenaren omenez antolatutako prentsa-aurreko ekitaldia

2022ko abenduaren 17an, 12:30etan
Aretxabaletan, Arkupe Kultur-etxeko Areto Nagusian

PARTAIDEAK:

Ainhoa Cabero, *Udaletxeko kultur-zinegotzia*,
Ekaitz Oihanguren Igartua
Tere Irastortza Garmendia,
liburuaren koordinatzailea eta Idazle Eskolako zuzendaria
Jose Anjel Irigaray, *Pamiela*

EGITARAUUA:

- 12:30: KARMELE IGARTUA Sorkuntza Bekako sari ematea.
12:40: KARMELE IGARTUAren *Poesia bizitzeko eta sentitzeko modua da* liburuaren aurkezpena.
13:00: KARMELE IGARTUAren poesia irakurketa eta Bekako irabazlearen poesia irakurketa.



KARMELE IGARTUA BENGUA (*Aretxabaleta*, 1959-2010)

Bertako Kurtzebarri Eskolan irakaslea izan zen eta testugintzan ere aritua. Bergarako Idazle Eskolako gradu-ondokoa bukatu ostean, bertako koordinatzaile eta sustatzaile izan zen.

Hitzak orbainetan poema liburua, 2007ko Felipe Arrese Beitia Saria irabazi ondoren argitaratu zuen (Euskaltzaindia-BBK Fundazioa, Bilbo, 2008). Ordurako irabazia zuen Bergarako Idazle Eskolako sorkuntza beka, eta taularatuak hainbat antzezlan. Liburu hartarako idatzi zuen:

«Zer eta nola galderen erantzunak ditut bizi ardatz, horregatik, zeresana izan edo esateko moduan asmatzea dira idaztearen oinarri eta idazlearen erronka».

2009an eman zuen argitara *Denbora enaren hegaletan* (Pamiela). Ordurako itzuliak zituen *Wilnoko gutunak* eta argitaratuak Marina Tsvietaievaren biografiarekin *Egan* aldizkarian (LXII. alean). Denboraz, sormenaz eta sorminaz idatzitako liburuan, enara beltzen hegaldi gera ezinaz aritu zen.

2011n argitaratu zen berak hil ala biziko aldian idatzitako *Itsaso kontra bat* (Pamiela). Liburu hau Espainako Poesia Sari Nazionalerako hautagai izan zen.

Karmele Igartua Bengoa poeta garaikidea izango da bere garai-garaikoa izan zelako, eta berak hainbeste estimatzen zuen Marina Tsvietaievaren hitzetan «Garaikide izatea norberaren denbora sortzea baita».



IDAZLE
ESKOLA

